

SOSTOA ABESBATZA 25 URTE KANTUZ

Antonio Sarasuak zuzentzen zuen “Coral Eibarresa” 1962. urtean desagertu ondoren, musika korala faltan botatzen zuen eibartar talde bat, abesbatza berri bat sortzeko lehen urratsak jorratzen hasi zen 1983. urtean.

Udalak ideia bereganatu eta deialdi zabal bat egin zuen herrian. Jende askok erantzun zion deialdi honi - ehundik gora lagunek-.Lehen pausoak urte hartako azaroan eman ziren; lehen batzarrak, zuzendaria aurkitu, entsaio plangintza orokorra, probak, soka desberdinak antolatu, abesbatzaren izena aukeratu, etab.

1984. urteko urtarrilean jarri zen martxan abesbatza berria: “Sostoa”. Izen hau, XVIII. mendean Arantzazuko Musika Kaperako Andres eta Manuel eibartar frantzizkotar musikagileak oroitzuz aukeratua izan zen. Horrela hasi zen Eibarko SOSTOA ABESBATZA-ren historia , Jesús Mari Sagarnaren zuzendaritzapean.

Sostoaren lehen ekitaldia Santa Ageda erronda izan zen, eta ohitura honekin jarraitu dugu urtez urte, otsailak 4an erronda egiten, herriko zenbait beharretarako dirua bilduz.

25 urte hauetan zehar hainbat ekintza desberdin egin ditugu: Ohiko kontzertuak Aste Santukoa, San Juanetakoa eta gabonetakoa izaten dira. Gero beste koru batzuekin elkartu ohi gara, guk beraien herrian kantatu, eta aldiz beraiek gure herrian.

Txapelketetan ere parte hartu izan dugula esan beharra dugu. Horretarako lan gogorra eginda joan izan gara eta ez dugu emaitza txarririk izan. Avileseko txapelketara aurkeztu ginen 1988. urtean eta 2. saria jaso genuen.

Bestalde ahaztu ezinak dira Europan zehar egin ditugun bidaiak toki desberdinak ezagutzuz, eta hain leku ederretan kantatuz: **Viena** (1994), **Paris** (1997), **Erroma** (1999), **Praga**(2003) eta azkena **Berlin**, aurtengo Aste Santuan 108 pertsonaz osaturiko taldea joan gara: korukide, familia eta lagunak. Izugarritzko giroa!!!

Aurten 25. urteurrena dela eta hainbat ekintza antolatu ditugu:

Lehenengoa urtarrilak 11n izan zen, egun horri bere garrantzia eman nahi izan genion, (orain dela 25 urte egun horretan lehenengo entsaioa izan zelako) eta hala izan zen: udaletxean batu ginen 100 bat pertsona Sostoa abesbatzaren inguruan: korukide, korukide ohiak, udala...

Aste Santu aurreko astean kontzertu sakroa egin genuen Karmeliten elizan beste bi korukin; Aritzeta Bergarakua eta Igorreko Luis Iruarizaga.

Maiatzak 30 ean Kontzertu bat eskaini genuen Koliseoan Eibarko bandarekin eta Sostoa abesbatzako korukide ohiekin batera (35 batek hartu zuten parte).

Oraingoan, San Juan jaietako programaren barruan, kontzertua eskeiniko dugu urtero bezala. Kontzertu hau, Usartza txistulari taldearekin izango da Ekainak 20-ko iluntzean, San Andres elizako klaustroan.

Urriak 24an Ainhoa Arteta izango dugu gure artean, San Andrés elizan eskeiniko digu emanaldia. Ekitaldi hau Eibarko Udalak Sostoa Abesbatzari 25.urteurrenagatik eskeini nahi izan dion opari bat izan da; oso pozik gaude horregatik. Hilabete honetan bertan, Portalean, urteetan jaso dugun materialarekin erakusketa bat egingo dugu. Bertan, Sostoa Abesbatzaren ibilbide osoko argazkiak, leku desberdinetan jasotako oroigarriak, etab. egongo dira ikusgai.

Urriaren bukaeran koru eguna ere ospatuko dugu. Bertan, urte hauetan zehar koruarekin harremana izan duen jendea biltzea nahi dugu: korukide, korukide ohiak, lagunak... Egun honetan bazkari edar bat egingo dugu festa giroan.

Azaroan beste kontzertu bat emango dugu Karmeliten elizan Santa Zezilia inguruan eta Gabonetako kontzertuakin amaituko dugu gure 25. urteurrena.

Urtea borobiltzeko eta oroigarri gisa, CD-a ateratzeko asmoa daukagu urteko emanaldiekin, baita liburutxo bat kaleratzea ere.

Ekintza guzti hauetara, beti bezala, atseginez gonbidatzen zaituztegu. 25 urte hauetako ibilbidea ezinezkoa litzateke Sostoa abesbatzaren entzule, bazkide, lagun eta kideen laguntzarik gabe.**ESKERRIK ASKO DENORI BIHOTZ-BIHOTZEZ!**